Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko uztailaren 22a, astelehena — 139 — Lunes, a 22 de julio de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*03-40-003/2019 Foru Agindua, uztailaren 8koa, kirol materiala erosteko diru laguntzen 2019ko deialdia ebazten duena (Kirol arloko diru laguntzak: C.2 eranskina).*

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

2019ko otsailaren 19an Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren bitartez onetsi ziren alde batetik kirol arloko diru laguntzak emateko oinarri orokorrak eta espezifikoak, eta bestetik, diru laguntza lerro bakoitzaren 2019. ekitaldiko deialdia. Aipatutako laguntzen artean, kirol materiala erosteko laguntzak daude, eta horien emakida C.2 eranskinean jasotako oinarrietan arautzen da.

Diru laguntza horiek arautzen dituzten oinarri orokorreko 9.2 puntuan ezartzen denez, eskaerak Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertuko dituzte, eta balorazio txostena egingo dute. Txosten hori Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, formaz nahiz epez aurkeztutakoak aztertu ditu Kirol Zerbitzuak eta txosten bat prestatu du eskaeren xedea diru laguntzak eman eta kopuruak zehazteko irizpideekin bat datorrela egiaztatuz.

Txosten hori lehen aipatutako ebaluazio batzordearen irizpenera jarri da eta Batzordeak 2019ko ekainaren 18an bileran bere egin du. Ondoren, diru laguntza horiek emateko prozeduraren ebazpen proposamena igorri dio Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari.

Kirol Zerbitzuak egindako txostenean eta horren ondorioz emandako eta foru agindu honetan jasotako ebazpen proposamenean zenbait eskaera ezetsi egiten dira arrazoi ezberdinengatik. Eskaera horiek eta ezesteko arrazoiak foru agindu honekin batera doan 2. eranskinean jasota daude.

10.2 oinarri orokorrak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da diru laguntzei publizitatea emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoa.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Orden Foral 03-40-003/2019, 8 de julio, por la que se resuelve la convocatoria 2019 de las subvenciones destinadas a la adquisición de material deportivo (Subvenciones en materia de deportes: anexo C.2.).*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 19 de febrero de 2019, se aprobaron las bases reguladoras generales y específicas del otorgamiento de subvenciones en materia de deportes, así como la convocatoria correspondiente al ejercicio 2019 de las distintas líneas de subvenciones. Entre dichas ayudas se encuentran las subvenciones destinadas a la adquisición de material deportivo, cuya concesión regulan las bases recogidas en el anexo C.2 de los que acompañan al citado acuerdo.

La base general 9.ª2 reguladora de estas subvenciones establece que las solicitudes correspondientes serán analizadas por el personal técnico de la Dirección General de Juventud y Deportes, quien elaborará un informe de valoración que será sometido a la Comisión Evaluadora que se constituya, la cual, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y la elevará al órgano competente para su aprobación.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, y analizadas por el Servicio de Deportes las presentadas en forma y plazo, dicho servicio ha emitido un informe en el que contrasta el objeto de las solicitudes con los criterios de concesión y cuantificación de estas subvenciones.

Este informe ha sido sometido a la Comisión Evaluadora a la que se ha hecho mención anteriormente, la cual, reunida el día 18 de junio de 2019, haciendo suyo el citado informe, ha elevado propuesta de resolución del procedimiento de concesión de estas subvenciones a este diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes.

El informe del Servicio de Deportes y la propuesta de resolución que del mismo se deriva y se traslada a esta orden foral contemplan, asimismo, la desestimación de una serie de solicitudes por diversos motivos, solicitudes y motivos de desestimación que se recogen en el anexo 2 de los que acompañan a la presente orden foral.

De conformidad con lo dispuesto en la base general reguladora 10.ª2 y en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2019-04871

Horregatik guztiagatik, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Ematea foru agindu honen I. eranskinean jasotako taulan agertzen diren entitateei bertan adierazitako diru laguntzak, kasuan kasu taula horretan bertan zehazten den errendimenduko kirol materiala erosteko, guztira 29.999,99 euro (Errendimenduko kirol materiala erosteko diru laguntzak: C.2.a. eranskina).

Dagokion gastua A 02 750-2019 kontabilitate erreferentziaren kargura xedatuko da.

*Bigarren.* Ematea foru agindu honen II. eranskinean jasotako taulan agertzen diren entitateei bertan adierazitako diru laguntzak, kasuan kasu taula horretan bertan zehazten den eskola kiroleko kirol materiala erosteko, guztira 30.000,00 euro (Eskola kiroleko kirol materiala erosteko diru laguntzak: C.2.b. eranskina).

Dagokion gastua A 02 751-2019 kontabilitate erreferentziaren kargura xedatuko da.

*Hirugarren.* Kasu bakoitzean emandako diru laguntza aldi bakarrean ordainduko da, betiere laguntza bakoitzari dagokion 6. oinarri arautzaile espezifikoan adierazitako obligazioak bete dituela 2019ko urriaren 31n bukatu baino lehen egiaztatu eta gero. Horrela egin ezean galdutzat eman ahal izango da emandako diru laguntza.

*Laugarren.* Ezestea foru agindu honen III. eranskinean jasotako diru laguntza eskaerak, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

*Bosgarren.* Agintzea foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori.

Donostia, 2019ko uztailaren 8a.—Ana Urkola Aranburu, idazkari teknikoa. (4871)

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes,

RESUELVE

*Primero.* Conceder a las entidades que se relacionan en el cuadro que se acompaña a la presente orden foral como anexo I, las subvenciones que se indican, para la adquisición del material deportivo de rendimiento que, en cada caso, en ese mismo cuadro se especifica, por un importe total de 29.999,99 euros (Subvenciones destinadas a la adquisición de material deportivo de rendimiento: anexo C.2.a).

Dicho gasto se dispondrá con cargo a la referencia contable A 02 750-2019.

*Segundo.* Conceder a las entidades que se relacionan en el cuadro que se acompaña a la presente orden foral como anexo II, las subvenciones que se indican, para la adquisición del material deportivo de deporte escolar que, en cada caso, en ese mismo cuadro se especifica, por un importe total de 30.000,00 euros (Subvenciones destinadas a la adquisición de material deportivo para deporte escolar: anexo C.2.b).

Dicho gasto se dispondrá con cargo a la referencia contable A 02 751-2019.

*Tercero.* La subvención concedida en cada caso será hecha efectiva en un solo pago, una vez que la entidad beneficiaria haya acreditado, antes de 31 de octubre de 2019, el cumplimiento de las obligaciones señaladas en la base específica 6.ª de las reguladoras de las respectivas ayudas, pudiendo en caso contrario darse por perdida la subvención concedida.

*Cuarto.* Desestimar las solicitudes de subvención que figura en el anexo III de los que acompañan a la presente orden foral, por las razones que en ese mismo anexo se señalan.

*Quinto.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que le traslado a Vd. para su conocimiento y efectos.

San Sebastián, a 8 de julio de 2019.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu. (4871)

I. ERANSKINA / ANEXO I
KIROL GAIETAKO DIRU LAGUNTZAK: C.2.A. ERANSKINA – ERRENDIMENDUKO KIROL MATERIALA EROSTEA.
SUBVENCIONES EN MATERIA DE DEPORTES: ANEXO C.2.A - ADQUISICIÓN DE MATERIAL DEPORTIVO DE RENDIMIENTO

(Onartutako eskaerak) / (Solicitudes estimadas)

| *Espediente zk.<br>Nº de expediente* | *Entitate onuraduna<br>Entidad beneficiaria* | *Materiala* | *Material* | *Unit.<br>Unid.* | *Dirulaguntza<br>Subvención<br>(euros/s)* |
|---|---|---|---|---|---|
| 2019-MAT1-000002-01 | Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa | Txirrinduentzako kotxea | Coche para las bicicletas | 1 | 9.000,00 |
| 2019-MAT1-000004-01 | Gipuzkoako Xake Federazioa | CE Classic Clock xakeko kronometroak | Cronometros de ajedrez CE Classic Clock | 100 | 3.819,75 |

| *Espediente zk.*<br>*Nº de expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Materiala* | *Material* | *Unit.*<br>*Unid.* | *Dirulaguntza*<br>*Subvención*<br>*(euros/s)* |
|---|---|---|---|---|---|
| 2019-MAT1-000006-01 | Gipuzkoako Urpeko Jardueren Federazioa | Bihotza babesteko gunerako packa | Pack Espacio Cardio-Protegido | 1 | 3.256,20 |
| | | Bergen zamarra eta galtzak | Cazadora y pantalón Bergen | 6 eta 6 | |
| | | GPS Plotter Sonda Garmin Echomap 62CV, atzeko transduktorea eta inguruko kartografia daramana | GPS Plotter Sonda Garmin Echomap 62CV con transdcutor popa y Cartografía de la zona | 1 eta 1 | |
| 2019-MAT1-000008-01 | Club Deportivo Fortuna | Favero WF1 hari gabeko tresna | Aparato Inalámbrico Favero WF1 | 1 | 1.769,16 |
| | | Favero itu elektronikoa | Diana electrónica Favero | 1 | |
| | | Favero "Millenium" bilkaria | Rulo Favero "Millenium" | 6 | |
| 2019-MAT1-000009-01 | Gipuzkoako Atletismo Federazioa | VF210Club Vision 1000 kable linea (3. haririk gabea) + (Kableatu kita fotofinish irteera sistemetarako) PVF1-ENR. 100M (irteera zirkuitua) + (Kableatu kita fotofinish irteera sistemetarako) PVF1-ALARG. (pistolakin lotzeko kablea 15M) | VF210Club Vision 1000 lineas cable (3.Inalámbrico) + (Kit de cableado para sistema de salidas fotofinish) PVF1-ENR. 100M (circuito salidas) + (Kit de cableado para sistema de salidas fotofinish) PVF1-ALARG. (Cable unión pistola 15M) | 1 +1 +1 | 9.000,00 |
| 2019-MAT1-000010-01 | Gipuzkoako Piraguismo Federazioa | ADR 4-50 pala, %75 karbono P/sistema | Palas ADR 4-50 75 % carbono P/ sistema | 4 | 3.154,88 |
| | | Slalom Profi kanoa | Canoa slalom Profi | 1 | |
| | | K2 Piragua Rio Basic | Piragua K2 en construcción Rio Basic | 1 | |
| | | Guztira/Total ........ | | | 29.999,99 |

II. ERANSKINA / ANEXO II
KIROL GAIETAKO DIRU LAGUNTZAK: C.2.B. ERANSKINA - ESKOLA KIROLEKO KIROL MATERIALA EROSTEA.
SUBVENCIONES EN MATERIA DE DEPORTES: ANEXO C.2.B - ADQUISICIÓN DE MATERIAL DEPORTIVO PARA DEPORTE ESCOLAR.

(Onartutako eskaerak) / (Solicitudes estimadas)

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Materiala* | *Material* | *Unit.*<br>*Unid.* | *Dirulaguntza*<br>*Subvención*<br>*(euros/s)* |
|---|---|---|---|---|---|
| 2019-MAT3-000001-01 | Gipuzkoako Eskubaloi Federazioa | Aterako langa | Juego de larguero para portería | 1 | 2.506,18 |
| | | Eskubaloiko atea, ekintza bandalikoen aurkakoa, aluminiozkoa, EBM009 oinarriduna | Juego portería balonmano antivandálica aluminio con base EBM009 | 1 | |
| | | Eskubaloiko sareak | Juego redes balonmano | 1 | |
| 2019-MAT3-000002-01 | Gipuzkoako Judo Federazioa | Kern MPC 300K-1LM maleta itxurako mediku baskula eramangarria | Báscula maleta médica portátil Kern MPC 300K-1LM | 2 | 1.220,00 |
| 2019-MAT3-000003-01 | Gipuzkoako Irristaketa Federazioa | Atezainen babesak XXS Blu | Guardas portero XXS Blu | 1 | 1.844,74 |
| | | Eskularruak XXS Blu | Guantes XXS Blu | 1 | |
| | | MCROLLER COMPATTO sticka | Sticks MCROLLER COMPATTO | 25 | |

EK\CV GAO-I-2019-04871

| *Espediente zk.<br>Nº expediente* | *Entitate onuraduna<br>Entidad beneficiaria* | *Materiala* | *Material* | *Unit.<br>Unid.* | *Dirulaguntza<br>Subvención<br>(euros/s)* |
|---|---|---|---|---|---|
| | | CCM Titan 4020 Sr. sticka | Stick CCM Titan 4020 Sr. | 24 | |
| 2019-MAT3-000004-01 | Club Deportivo Fortuna | GJ sable xafla | Hoja sable GJ | 40 | 1.323,00 |
| | | Plastikozko maskara CE | Careta plástico CE | 8 | |
| | | Plastikozko sablea CE | Sable plástico CE | 8 | |
| | | 350N CE GJ jaka | Chaqueta 350N CE GJ | 8 | |
| | | Eskularru garbigarria, hastapenekoa, urdina | Guante lavable iniciación azul | 8 | |
| | | GJ sable elektriko osoa | Sable eléctrico completo GJ | 8 | |
| 2019-MAT3-000005-01 | Gipuzkoako Karate Federazioa | Jowy Tatami puzzlea, 1x1 2,5 cm, urdina/gorria | Jowy Tatami puzzle 1x1 2,5cm azul/rojo | 80 | 847,00 |
| 2019-MAT3-000007-01 | Gipuzkoako Bela Federazioa | Txalekoa (S) | Chaleco talla S | 40 | 15.566,91 |
| | | Txalekoa (S) | Chaleco talla S | 40 | |
| | | Narwhal HD-450 ontzi erdizurruna | Embarcación semirrígida Narwhal HD-450 | 1 | |
| | | Jockey eserleku bakarrekoa | Jockey monoplaza | 1 | |
| | | Yamaha F-25 Gel karelez kanpoko motorduna | Motor fueraborda Yamaha F-25 Gel | 1 | |
| | | Erloju takometroa | Reloj tacómetro | 1 | |
| | | Alboko aginte kaxa | Caja de mandos lateral | 1 | |
| | | Direkzio multzoa, bolanteduna | Conjunto dirección con volante | 1 | |
| | | Gasolina dekantatzeko aurreiragazki | Prefiltro decantador de gasolina | 1 | |
| | | Marruskadura txikiko aginte kable | Cables de mandos de bajafricción | 2 | |
| | | Bateria (75 AH) | Batería de 75 AH | 1 | |
| | | Bateria eramateko kutxa | Caja portabateria | 1 | |
| | | Bateria borneak | Bornes bateria | 1 | |
| | | Bateria deskonektagailua | Desconectador batería | 1 | |
| 2019-MAT3-000008-01 | Gipuzkoako Beisbol eta Sofbol Federazioa | Napo beisboleko eskularrua, 26,60 cm. | Guante Beisbol Napo 26,60 cm | 10 | 381,39 |
| | | 3 basetako sorta, Goma, Markwort | Set de 3 bases, Goma , Markwort | 2 | |
| | | HP2 Home Plate Benson goma gogorrezkoa | Home Plate De Goma Dura benson HP2 | 2 | |
| | | Batting Tee - Euskarria | Batting Tee - Soporte | 1 | |
| 2019-MAT3-000009-01 | Gipuzkoako Piraguismo Federazioa | K1 Sonic S | K1 Sonic S | 1 | 4.862,99 |
| | | K1 Sonic M | K1 Sonic M | 2 | |
| | | ADR-46 palak %50 karbonoa P/Sistema | Palas ADR-46 50% carbono P/Sistema | 10 | |
| 2019-MAT3-000010-01 | Gipuzkoako Hockey Federazioa | Atezainen zango babesak@OGO | Pies porter@ OGO | 2 | 800,79 |
| | | OGO atezainen babesak | Guardas porter@ OGO | 2 | |
| | | Hodi korrug. kanaliz. Geruza bikoitza T/125 rollo | Tubo corrug. canaliz. doble capa T/125 rollo | 1 | |


EK\CV GAO-I-2019-04871

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Materiala* | *Material* | *Unit.*<br>*Unid.* | *Dirulaguntza*<br>*Subvención*<br>*(euros/s)* |
|---|---|---|---|---|---|
| 2019-MAT3-000012-01 | Gipuzkoako Halterofilia Federazioa | AG40002 - 16 pikaz osatutako seta (4 x kolore bakoitzeko) Pika PVC Ø25 mm - 100 | AG40002 - Set 16 picas (4 x color) Pica PVC Ø25mm - 100 cm | 2x25 | 647,00 |
| | | KX Force Slamball baloi medizinala. 3 kg, 4 kg eta 5 kg | Balon Medicinal Slamball KX Force. 3 Kg, 4Kg eta 5Kg | 8, 4 eta 2 | |
| | | Beira zuntzezko metroa (10 m); plastikozko estutxea ABS | Cinta métrica fibra de vidrio 10m estuche de plástico ABS | 8 | |
| | | DT1 Kronometroa | Cronómetro DT1 | 2 | |
| | | Kono txinatarrak 4 koloretakoak. 48 unitate | Conos chinos 4 colores. Set 48 Uds | 12x2 | |
| | | Entrenamendurako hesi malgua, 15 cm | Valla de entrenamiento Flexible 15 cm | 6 | |
| | | Jarduera askotarako soka, 30 m., bi koloretakoa. | Cuerda multiactividad 30 m. Bicolor | 2 | |
| | | Malabaretarako zapiak, 65 x 65 cm. 3 unitate | Pañuelos malabares 65 x 65 cm. Jg. 3 unidades | 2 | |
| | | Abilezia lantzeko eskailera, 4 metrokoa, kakoduna. Maila lauak, distantzia erregulagarria | Escalera agilidad 4m. con enganches. Peldaños planos, distancia regulable | 2 | |
| | | Pikak, uztaiak, hesiak... biltzeko goma elastikoa | Goma elástica para agrupar picas, aros, vallas... | 2 | |
| | | Materiala eramateko XXL poltsa. Erresistentzia handikoa. | Bolso Porta material XXL. Alta Resistencia | 2 | |
| | | Guztira/Total ........ | | | 30.000,00 |

III. ERANSKINA / ANEXO III

(Ezetsitako eskaerak / Solicitudes desestimadas)

KIROL GAIETAKO DIRU LAGUNTZAK: C.2.A. ERANSKINA – ERRENDIMENDUKO KIROL MATERIALA EROSTEA.
SUBVENCIONES EN MATERIA DE DEPORTES: ANEXO C.2.A - ADQUISICIÓN DE MATERIAL DEPORTIVO DE RENDIMIENTO

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Entitate eskatzailea*<br>*Entidad solicitante* | *Arrazoia*<br>*Motivo* |
|---|---|---|
| 2019-MAT1-000001-01 | Club Deportivo Irutxulosub | 2 |
| 2019-MAT1-000003-01 | Lur-Alai Squash Kluba | 2 |
| 2019-MAT1-000005-01 | Gipuzkoako Eskubaloi Federazioa | 1 |
| 2019-MAT1-000007-01 | Tolosa Club de Futbol | 2 |
| 2019-MAT1-000011-01 | Agrupación Deportiva Txindoki Atletismo | 2 |

— Ezesteko arrazoia.

1. Eskaeraren xedea ez dator bat oinarri arautzaileetan xedatutakoarekin: «Inolaz ere ez zaio laguntzarik emango kirol ekipazioen erosketari» (4.2. oinarri espezifikoa).

2. Entitate eskatzaileak ez ditu betetzen diru laguntza hauetara aurkezteko beharrezkoak diren baldintzak: diru laguntza hauek jasotzeko aukera Gipuzkoako kirol federazioek bakarrik izango dute (2. oinarri espezifikoa).

— Motivo de desestimación.

1. El objeto de la solicitud no se ajusta a lo establecido en las bases reguladoras: «No se subvencionará en ningún caso la compra de equipaciones deportivas» (base específica 4.2.).

2. La entidad solicitante no cumple con los requisitos exigidos para poder acceder a estas subvenciones: Podrán optar a estas ayudas exclusivamente las federaciones deportivas guipuzcoanas (base específica 2).

KIROL GAIETAKO DIRU LAGUNTZAK: C.2.B. ERANSKINA - ESKOLA KIROLEKO KIROL MATERIALA EROSTEA.
SUBVENCIONES EN MATERIA DE DEPORTES: ANEXO C.2.B - ADQUISICIÓN DE MATERIAL DEPORTIVO PARA DEPORTE ESCOLAR.

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Entitate eskatzailea*<br>*Entidad solicitante* | *Arrazoia*<br>*Motivo* |
|---|---|---|
| 2019-MAT3-000011-01 | Lur-Alai Squash Kluba | 1 |

— Ezesteko arrazoia.

1. Entitate eskatzaileak ez ditu betetzen diru laguntza hauetara aurkezteko beharrezkoak diren baldintzak: diru laguntza hauek jasotzeko aukera Gipuzkoako kirol federazioek bakarrik izango dute (2. oinarri espezifikoa).

— Motivo de desestimación.

1. La entidad solicitante no cumple con los requisitos exigidos para poder acceder a estas subvenciones: Podrán optar a estas ayudas exclusivamente las federaciones deportivas guipuzcoanas (base específica 2).